



■ ERRUGBLIA

Aurreneko zita etxean, bihar

Bihar jokatu du Heineken Ligako bigarren jardunaldia Hernani Errugbi Elkarteko Ohorezko taldeak. Cisneros izango du bisitari, arratsaldeko 17:00etan hasita, Landaren. ■

■ TXANTXANGORRI

Txapelketa, gaur

35garren Sagardo Txapelketa egingo du gaur Txantxangorri elkarteak; 15 sagardotegik hartuko dute parte aurten: Itsasburuk, Larre-gainek, Otsua-eneak, Iparragirrek, Zelaiak, Alorreneak, Petrategik, Herreroak, Bereziartuak, Gaztañagak, Astiazaraneak, Barkaiztegiak, Lizeagak, Eulak eta Altunak. 154 lagun elkartuko dira afaltzeko, urtero bezala, giro ederrean. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa, Plazan

Kontzentrazioa deitu dute gaur, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek. Plazan izango da, arratsaldeko 20:00etan. ■

■ EH BILDU

Hauteskundeak aztergai, bihar

2019an izango dira udal hauteskundeak, eta zita horren bueltan, dagoeneko lanean da Hernaniko EH Bildu. Aurreko astean egin zuen bilera irekia, eta bihar mintegia egingo dute, 09:30etan, Biterin. 2015-2019 legealdiko balantzea egingo dute, baita aurrera begirako ildoak zehaztu ere. ■

■ WATERPOLOA

Ate irekiak, bi egunetan

Hernaniko Kirol Elkarteko waterpolo taldeak hernaniarrak animatu nahi ditu kirol hori egitera, eta kirola gerturatzeke, ate irekiak egingo ditu gaur eta hurrengo ostiralean, 19:00etatik 20:00etara. Horrez gain, bihar jokatu du aurreneko lagunartekoa Hernanin, 13:30etan, Easoren aurka. ■

■ MUGIKORTASUN ASTEA

Ginkanarekin hasiera, Mugikortasun Asteari

Arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara egingo dute ginkana Koxka Elkartearen laguntzarekin. Bihar izango dira Mugikortasun Asteko ekintza gehienak.

BESTEEN lekuan jartzeko asmoarekin egingo dute gaur Kirol Egokituaren ginkana Kemeneke, Hernadesek, AGIk eta AGAEBek, Hernaniko Koxka Elkartearen laguntzaz. Arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara izango da, Atsegindegian.

Ginkanako probaz gain, aurpegia margotzeko aukera izango dute gaztetxoek, baita tailerretan parte hartu eta txokolatea meriendatzeko aukera ere.

Ekintza gehiago, Mugikortasun Astean

Hain zuzen, Mugikortasun Asteari hasiera emango dio gaurko ginkanak. Bihar izango du jarraipena patin festarekin eta ipar martxako ikastaro eta ibilaldiarekin. Etzi, igandean izango dira azkeneko ekintzak. ■



Desgaitasunen bat daukan baten lekuan jartzeko aukera izaten da.

GAUR

17:30-19:30, Kirol egokituaren ginkana, Atsegindegian.

BIHAR

10:00, Patin Festako elkarretartzea, Plaza Berrin. 10:30etan hasiko dute ibilaldia.

10:30, Ipar martxako oinarriko ikastaroa eta ibilaldia, Atsegindegitik abiatuta; euria eginez gero, kiroldegian.

11:30, Patin Festako ginkana, Urbieta kalean.

12:15, Patinatzaile trebatu eta txapeladunen erakustaldia, Urbietan

13:00, Hamaiketako, Patin Festako partehartzaile guztientzat.

ETZI

09:30-12:00, Bizikleta ibilaldia, Atsegindegitik abiatuta.

09:30-12:00, Bide-heziketa zirkuitua, Atsegindegian.

10:00-14:00, Emisio txikiko ibilgailuen erakusketa: ibilgailu hibrido eta elektrikoak (autoak, motoak eta bizikletak). Zinkoenean. Horiertako batzuk probatzeko aukera ere izango da.

■ MERKATARITZA FESTA

109 merkatari eta ostalari gaur, kalean

Goizeko 10:00etatik aurrera dendak kalera aterako dituzte, Kaxkoan zehar.

AURTEN bete ditu 25 urte Berriar merkatari eta ostalarien elkarteak, eta hori ospatzeko, Merkataritzaren eta Ostalaritzaren festa egingo dute gaur. Gainera, aprobetxatuko dute herrian erostea sustatzeko, eta herritarrei gogorarazteko «Hernanin topatuko dutela behar duten guztia», azaldu dute.

Komertzioak kalean, goiz eta arratsaldez

Hernaniko kaleetan, bereziki, Kaxkoan komertzioaren presentzia areagotzeko asmoz, kalera aterako dira, dena, 109 merkatari eta ostalari. Goizean, 10:00etatik 13:30etara izango dira bertan; eta arratsaldez, 16:30etatik 20:00etara.

Musika eta beste

Ekintza gehiago ere izango dira. Musikak alaituko ditu kaleak, goizeko 11:00etan hasita, eta omenaldia egingo diote Portalondori, 100 urte bete dituelako. Arratsaldean, tailer eta jolasak egingo dituzte, baita Thunder Huntersen kontzertua eta Batukada ere. ■

EGITARAUA

10:00-13:30, komertzioak kalera! Kaxkoan zehar.

11:00, Musika kaleetan zehar.

13:30, Omenaldia: Portalondok 100 urte.

16:30-20:00, Komertzioak kalera!

16:30-18:30, Tailer eta jolasak: elikagaien etiketak irakurtzen ikastea, aurpegiak margotzea, altxorren bila...

18:15-19:15, Kontzertua: Thunder Hunters.

19:00, Batukada.

HERNANIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZAREN FESTA

IRAILAK 21

10:00 - 13:30h	KOMERTZIOAK KALEAN!
11:00h	MUSIKA KALEETAN ZEHAR
13:30h	PORTALONDORIN 100. URTEARRAREN OMENALDIA
16:30 - 20:00h	KOMERTZIOAK KALEAN!
16:30 - 20:00h	MERKATARIAK, OSTALARIEN TAILER ETXAK
18:15h	THUNDER HUNTERS KONZERTUA
19:00h	BATUKADA

BERRIAK, Hernaniko Kirol Elkartea, Koxka Elkarteak

GINKANA EGOKITUA

Aurpegiak ere margotuko zaizkie nahi duten umeei

GAUR - ATSEGINDEGIN
17:30etatik 19:30etara

Txokolatada ere izango da gerturatzen direnentzat

Koxka Elkarteak
hernaniar guztiak gonbidatu nahi ditu kirol egokituaren parte hartzera



☎ | TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Castilla Urbieta, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA
GAUR Lainoak areagotu egingo dira gaur, batez arratsaldetik aurrera, fronte hotz baten ondorioz. Euria ere ekarri dezake. Tenperaturak behera egingo du. Min.17° / Max.23°
BIHAR Giro argia bueltan izango da, eta gainera, tenperaturak gora egingo dute. Goizean lainotuta egongo da, baina egunak aurrera egin ahala hobera egingo du. Min.16° / Max.26° (euskaime)

AMHER-SOS ARRAZAKERIA

'Fatima' pelikula gaur, migrazioaz

Biterin eskainiko dute pelikula frantsesa gaur, arratsaldeko 19:00etan. Migrazioaz eztabaidatzeko antolatutako bi ekintzetako bat da hau.

MIGRAZIOAREN gaiak puri-purian jarraitzen du, eta horren inguruan aritzeko, bi jarduera antolatu ditu aste honetan AMHER-SOS Arrazakeriak elkarteak.

Atzo eskaini zuen hitzaldia Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako kideak, eta gaur, Fatima pelikula ikusi ahal izango da. Arratsaldeko 19:00etan jarriko dute, Biterin.

Ama argeliarraren istorioa

Ama baten istorioa kontatzen du pelikulak. Fatima Arge- liako emakumea da, Fran- tzian bizi dena. Ordu asko ematen ditu lanean etxeetan, ospitalean, eskoletan... baina frantsesik ia ez daki. Bi alaba



Atzo eskaini zuen hitzaldia Agustin Unzurrunzagak.

ditu eta eskolaren bidez ater- nahi ditu aurrera.

Hala ere, dena ez da hain erraza izango; arazo asko

izango baititu: familian, auzo- tarrekin, lanean... Etengabe ikasiz, bere buruaren jabe iza- tea da bere erronka. ||

KARABELGO EGUNA

Karabel festetan, biharko egunez

Auzoaren Eguna ospatuko dute bihar, egun osoko egitarauarekin. Gaur izango da azken aukera, txartelak, kamixetak, zapiak... aurrez erosteko.

DENA prest daukate Karabelen Auzo Eguneke etxeferoa botat- zeko. Bihar izango da hori, 10:00etan; aurreneko suziri- rekin batera, gainera, musi- kak alaituko du eguna.

Auzoko gaztetxoenei egingo diete deia hasteko, jolastera jaisteko, aurpegiak margotze- ko aukera eta puzgarrietan ibiltzeko izango dituzte, or- duan. Ondoren, buruhandiak aterako dira.

Ordura arte, tortilla eta bizkotxoak prestatzen arituko dira helduak, etxean; 11:45eta- rako entregatu eta eguerdian sariduna den ala ez jakiteko!

Ordu berean animatuko

ditu txikienak Lekimek; sa- gardo dastaketa eta toka txapelketa ere, 12:00etan izango dira. Paella janarekin bapo ge- ratuko dira denak, gero.

Eguna bukatzeko, jolasak eta dantza: hasteko, bingoa eta jokoak izango dira, eta buka- tzeko, zumba eta DJ Nemus. Zezen suzkoa eta trakarekin bukatuko dira festak, gaeuz.

Salgai, gaur arte

Gaur izango da azken eguna paella-jaterako txartelak, bin- gorako kartoiak, kamixetak eta zapiak erosteko. 17:00eta- tik 20:00etara erosi ahal izan- go dira, auzo elkarteetan. ||

EGITARAUA

10:00, Diana.
10:30, Aurpegi margolariak eta puzgarriak.
11:00, Buruhandiak.
12:00, Tortilla eta bizkotxo txapelketa (goizeko 11:45ak arte entregatu ahal izango da, txosnan).
Bitartean, Haurrentzat animazioa Lekimekin; sagardo dastaketa; eta toka txapelketa.
14:00, 'Paella' herrikoia.
15:30, Bingoa.
17:00, Joko herrikoia.
18:30, Txokolatada
19:00, Zumba.
21:00, DJ Nemus.
22:00, Zezen suzkoa.
00:00, Traka eta suak.

BIKAIN
OKINDEGI TR GOZOTEGI

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezizgo poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

EUSKARA ARI DU

Erronkalariek bat bihar, kale-erronkan

Eguerdiko 12:30etan hasiko da Zinkoeneatik, eta herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

EUSKERAZ bakarrik ez, ekintzaz ere blai hasi dute iraila Eus- kara Ari Du elkarteak kideak. Bakean dagoena, bakean utzi antzerkia eskaini zuten ostegu- nean, eta biharko, beste deialdi berezi bat egingo dute. Kale- erronka deitu dute, eguerdiko 12:30etan abiatuko da.

Hasiera batean Plazatik abiatuko bazen ere, Euskara Ari Du elkarteak abiapuntua aldatu du, eta Zinkoeneatik abiatuko da kale-erronka.

Laskurain eta Gojenola, gidariak

Mikel Laskurain eta Miren Go- jenolak gidatuko dute kale-

animazioa, Ttarla dantza tal- dearen, Hatziklinbers eta Iraulio Pantallone Bertso Esko- lako kideek eta Musika Esko- lako ikasleek lagunduta.

Sorpresak, kalean zehar

Zinkoenean hasita egingo dute dinamizazioa Kaxkoko kale- tan zehar, eguerditik. Sorpre- satxoak izango dira bidetik, eta bukaera, Tilosetako frontoian egingo dute.

Ekitaldi berezia izango dela iragarri dute, eta horregatik, bertaratzeko gonbidapena lu- zatu diete bai *Baietz Hernanik!* egitasmoko erronkalariei, bai- ta hernaniar guztiei ere. ||

IGERIKETA

Luis Goñi garaile izan da Flysch Beltzan

Luis Goñik Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia irabazita eman dio bukaera denboraldiari. Bi ibilbide zeuden: bata, 6.500 metrokoa Saturraran eta Deba artean, eta bestea, 3.000koa Mutriku eta Deba artean. Goñik bigarren hau irabazi zuen Zugatz Ansa eta Mikel Bildosolaren aurretik. Bihar, Luis eta Enaitz Goñik, Gipuzkoako Liga irabazteagatik, igeriketa galan saria jasoko dute Ordizian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANTONIA CUENCA PEREZ

Besarkada bat familiari.

ADARRAGA GOZOTEGI KO LANKIDEAK

Hernanin, 2018ko irailaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak bi lanpostu eskaintzen ditu zuntz optikoa Gipuzkoan komertzializatzen.

Kontratu indefinidoa, formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesatuak bidali C.V.a rrhh@logikaline.com helbidera

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten.

Orduetgia: goiz eta arratsalde. Deitu: 654 122 548

Okindegi/kafetegi bat traspasatzen da Hernanin, informazio gehiagorako: 658 737 096

Zinkoenean 16 m-ko garaje itxia salgai. Deitu: 607 349 163

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)